

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Gaubeako enpresa berriei laguntzak emateko deialdia, 2020ko ekitaldirako

Udalbatza honek, 2020ko urtarrilaren 31n balio osoz egindako osoko bilkuran, onetsi zituen Gaubeako enpresa berriei laguntzak emateko deialdia eta horren oinarri arautzaileak. Horren gainean hartutako erabakietan hirugarrena betez, oinarri horiek ALHAOn argitaratzen dira, objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioak bermatzeko.

Gaubea, 2020ko ekainaren 10a

Alkate lehendakaria

JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUDERO ISUSI

Gaubeako enpresa berriei laguntzak emateko udal programa arautzen duten oinarriak, 2020ko ekitaldirako

1. oinarria. Xedea eta aplikazio eremua

Oinarri hauen xedea da arautzea Gaubeako Udalak Gaubeako udalerrian enpresa jarduerak ezarri, eraberritu, modernizatu eta berritzearen aldeko finantzaketari laguntzeko eman ahal di-tuen laguntza ekonomikoen deialdia, eta arautzea dirulaguntzak emateko modua, era aktiboan lagunduz enplegua sortzen duten enpresa proiektuak abiarazten.

Laguntza ekonomiko horiek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira.

2. oinarria. Onuradunak

Laguntzen onuradun izan ahalko dira udalerrian azken bi urteetan enpresa ekimen bat abia-razi edo hasi duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak eta ondasun erkidegoak, helbide fiskala Gaubean daukatenak.

3. oinarria. Onuradunen baldintzak

Laguntzen onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Gaubean bertan enpresa jarduera bat hasi beharko dute edo azken bi urteetan hasi-takoarekin jarraitu.
- Enpresaren establezimendua Gaubea udalerrian izan beharko dute.
- Enpresa proiektua sustatu duten pertsonetako bat, gutxienez, Gaubeako Udalean erroldatuta egon beharko da eskaria egiten den unean.
- Enpresak ez ditu 10 langile baino gehiago izango.
- Dirulaguntza honen onuradunek egunean izan beharko dituzte herri administrazioekiko bere zerga betebeharrak. Era berean, Gizarte Segurantzarekiko bere betebeharrak ere egunean izan beharko dituzte.
- Enpresak, gutxienez, 3 urtez jarraitu beharko du lanean.

4. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Diruz lagun daitekeen inbertsioaren gehienez ehuneko 40koa izango da dirulaguntza. Eman-dako dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da inoiz izan 15.000 eurotik gorakoa.

5. oinarria. Diruz lagun daitezkeen ekintzak

Laguntza lerro honetan, beraz, honako jarduera hauek jaso ahalko dute dirulaguntza:

- Negozioaren lokala alokatzeko kuotak.
- Negozioaren lokala egokitzeko lanak.
- Jarduerarekin lotutako ekipoak, altzariak, makinak eta tresnak erosteko gastuak.
- Webguneak sortzea.
- Informatika ekipoak.
- WIFI sareen instalazioa, bezeroei zerbitzua emateko.
- Merkataritzako errotulu elebidunak (euskara-gaztelania).
- Gizarte Segurantzarako kotizazioak, bai eta kontingentzia arrunten ziozkoak ere.
- Proiektua martxan jartzearen ondoriozko gastuak (eraketa gastuak, erregistroa, proiektu teknikoa...).

Gastu horiek diruz lagun daitezkeela ulertuko da, baldin eta enpresak jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta eman eta gehienez urtebeteko epean sortu badira eta negozioaren jardunarekin lotura zuzena badute.

Eskatzaile batek, aurreko ekitaldi batean ere dirulaguntza bat esleitu bazaio ere, eska dezake bigarren eta azken dirulaguntza bat deialdi honetan, inbertsio gastu berrietarako edo enplegua sortzeko inbertsioetarako, betiere deialdiak ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Ondorengo kontzeptu hauengatik ez da dirulaguntzarik emango:

- Garraio kostu, aseguru, administrazio baimenengatiko tasa, lizentzia eta antzekoengatik, ez eta zerga eta tributuak ordaintzeagatik.
- Garraiorako elementu, telebista, lokal edo eskualdaketa eskubideak erosteagatik.
- Mantentze lanen edo piezak konpondu edo ordezteko lanen gastuengatik.
- Bulegoko material, tresna, baxera, mahai tresna edo antzekoen gastuengatik.
- Finantza alokairuko formulen edo antzekoen bidez egindako inbertsioengatik.
- Berariaz "Diruz lagun daitezkeen merkataritza lokaleko ekipamenduen" zerrendan jaso ez den beste edozein aktiboren erosteagatik.
- Hornidura gastuengatik (argia, ura, telefonoa...).

6. oinarria. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izan beharko dira organismo publiko edo pribatuetatik datozen eta kontzeptu berberak diruz laguntzen dituzten beste batzuekin.

Hala ere, dirulaguntzaren zenbatekoa, osorik hartuta, ezingo da inoiz izan handiagoa, bakarrik edo beste laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezenez diruz lagundutako jardueraren kostua.

7. oinarria. Aurrekontu eskuragarria

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak 2020. urterako udal aurrekontuko 433 471000 "Enpresa arloko dirulaguntzak" partidaren kargura finantzatuko dira, 15.000 euroan.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

8. oinarria. Eskabideak aurkeztea

Eskabideak, nahitaezko dokumentazioarekin batera, Gaubeako udaletxeko erregistroan aurkeztu beharko dira (Jesus Guinea Arkitektoa, 46, 01426, Gaubea). Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Eskabidea aurkeztean, oinarri hauen edukia onartzen da.

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko abenduaren 31n amaituko da.

9. oinarria. Aurkeztu behar diren agiriak

Laguntza eskaerak deialdi honen eranskinean jasotako eskabide eredu normalizatuan aurkeztuko dira, enpresaren edo erakundearen ordezkariak daukan pertsonak sinatuta, agiri hauekin batera:

- Eskabidearen inprimakia eta zinpeko aitortpena: I. eranskina.
- Pertsona fisikoa izanez gero: NANaren fotokopia.
- Pertsona juridikoa izanez gero: IFKren fotokopia.
- Enpresaren eraketa eskriturak.
- Ordezkaritza ahalak.
- Ordezkaritza ahalak dituen pertsonaren NANA.
- Enpresak Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dauzkala dioen ziurtagiri eguneratua.
- Enpresak Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean dauzkala dioen ziurtagiri eguneratua.
- Soldatapeko langilerik eduki ezean: azken hileko autonomoen ordainagiria.
- Soldatapeko langilerik edukiz gero: Azken hileko TC2.
- Memoria deskribatzailea, gutxienez honako informazio hau jasoko duena:
- Enpresaren eta lokalean egindako enpresa jardueraren deskribapena.
- Egindako inbertsio edota erreformen deskribapena.
- JEZen alten eta bajen ziurtagiria, Foru Ogasunak igorria.
- Zinpeko aitortpena. (Eskabide eredu normalizatua).
- Laguntzen deialdi honen oinarriak ezagutu eta onartzearen aitortpena.
- Dirulaguntza publikoen itzulera edo zigor prozeduretan ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena.
- Erakunde eskatzailearen zinpeko aitortpena, adieraziz ez zaiola ezarri administrazio edo zigor arloko zehapenik dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko ezintasunik ezartzen dionik, edo ez daukala horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik, sexu arrazoien ziozko bereizketagatik Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera ezarritakoak barne.
- Zinpeko aitortpena, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik ekintza bererako jasotako edo eskatutako laguntzen gainekoa.

10. oinarria. Hutsak zuzentzea

Dirulaguntza eskatzen dutenek ez badituzte betetzen oinarri hauetan eskatutako baldintzak, edo nahitaezko dokumentazioa aurkezten ez bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunei dei egingo zaie, 10 egun balioduneko epean hutsuneak zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten. Halaber, jakinaraziko zaie ezen, halakorik egin ezean, beren eskaria atzera bota eta tramiterik gabe artxibatuta geratuko dela, Lege horretako 42.1 artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

Eskabidea ez da egintzat joko behar bezala beteta dagoen arte eta espedientea guztiz osatuta egon arte. Espedientea osatuta egoteko, bada, entregatutako dokumentazioa erregistratuta egon beharko da.

11. oinarria. Prozedura

1. Dirulaguntzak norgehiagoka araubidean emango ditu udalbatzak, Informazio Batzorde Nagusiak proposatuta. Batzordeak, proposamen hori egiteko, egoki irizten dituen aholku teknikoak eskatu ahal izango ditu.

2. Informazio Batzordea hiru hilean behin bilduko da, dagokion aldian aurkeztutako proposamenak ebazteko.

3. Informazio Batzordeak ezin du proposatu, inola ere, oinarri arautzaileetan ezarritakoa urratzen duen dirulaguntzarik emateko.

Gaubeako Udalaren iragarki taulan argitaratu da emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda. Zerrenda horretan laguntza zergatik ukatzen edo ematen ez den adieraziko da. Argitaratzeko orduan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 18. artikuluan, eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak 30. artikuluan xedatutakoa beteko da.

12. oinarria. Erakunde onuradunen betebeharrak

Laguntza hauen erakunde onuradunen betebeharrak izango dira:

1. Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza subjektibo zein objektibo aldatu bada, udalari aldaketaren berri ematea.

2. Gaubeako Udalari laguntzaren eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio edota dokumentazio osagarri oro ematea.

3. Ebazpen proposamena eman aurretik, zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean duela egiaztatzea.

4. Gaubeako Udalean zorrik ez izatea.

5. Behartuta daude dirulaguntza ematen denetik aurrera, gutxienez, hiru urtez betetzera jarduera ekonomikoa diruz lagundutako tokian. Establezimendua adierazitako epea baino lehenago itxiz gero, enpresa onuradunak itxiera horren berri eman beharko dio udalari eta itzuli egin beharko du emandako dirulaguntza, jarduerari utzi zaion egunetik dirulaguntza eman eta hiru urte betetzeko gelditzen den denboraren proportziozko zatian. Salbuespen gisa, nahiz eta hiru urteko epe hori igaro gabe egon, ez da eskatuko jasotako dirulaguntza itzultzea, baldin eta negozioaren titularra larri gaixorik badago edo hil bada.

6. Laguntzaren onuradunak enpresa proiektua sustatu duen pertsonaren eroldari eutsi beharko dio, gutxienez 3 urte jarraituetan.

7. Pertsona onuradunaren betebeharra izango da eskabideko hasierako baldintzei gutxienez hiru urtez eustea.

13. oinarria. Ordaintzeko modua

Laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, dirulaguntzaren xede diren gastuak faktura orijinalekin edo fotokopia konpultsatuekin justifikatu eta gero, betiere goian adierazitako baldintzak bete badira.

Ordainagiria ordaindu izana frogatzeko agiriak aurkezteko muga eguna 2021eko otsailaren 28a izango da. Frogagiri horiek aurkeztu ezean, ez zaio ordainduko enpresari dagokion zati proportzionala.

14. oinarria. Dirulaguntzen aldaketa

Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik badago, hura emateko ebazpenak aldatu egin ahalko dira. Edonola ere, aldaketa horrek oinarriotan ezarritako baldintzak bete beharko ditu beti.

15. oinarria. Dirulaguntzak itzultzea

Jasotako zenbatekoak itzuli egingo dira eta dirulaguntza ordaindu zenetik dagozkion legezko interesak eskatuko, baldin eta horien onuradunek urratu egiten badituzte oinarri hauetan, dirulaguntza esleitzeko ebazpenean eta aplikagarriak diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak, hargatik eragotzi gabe ez betetzearen ondorioz dagozkion akzioak.

16. oinarria. Ordezko araubidea

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena, haren garapen araudia eta urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena, aplikatuko dira.

17. oinarria. Konfidentzialtasun klausula

Gaubeako Udalak, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten du ezen eskatzaileen datu pertsonalak erakunde horren datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan gorde ahalko dituela. Helburua jarduerak hedatu eta sustatzea da. Horrenbestez, interesdunek hala nahi badute, datuak ikusi, berretsi, deuseztatu eta aurkaratu ahalko dituzte, Udaleko informazio eta erregistro zerbitzuaren bidez.

18. oinarria. Indarrean jartzea

Oinarri hauek eta laguntzen deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo hurrengoan jarriko dira indarrean.

I. eranskina

Izen-abizenak:.....NANa:.....

Honakoa ordezkatzuz (enpresaren edo erakundearen izena):.....

Izen komertziala:.....

Helbide soziala, fiskala edo lantokia:.....

Udalerrria:.....Posta kodea:.....Probintzia:.....

Telefono zenbakia:.....Posta elektronikoa:.....Web orria:.....

Enpresak egiten duen jarduera:.....JEZ:.....Altaren data:.....

Gaubeako Udalak onartutako laguntzen deialdiari dagokionez, enpresa ekimenak sustatzeko asmoz.

Adierazten du

1. Ezagutzen eta onartzen ditu enpresa berrien sorrera sustatzeko laguntzen deialdi honetan parte hartzeko beharrezko baldintzak ezartzen dituen oinarriak.

2. Ziurtatzen du enpresak eskabidean eman dituen datuak egiazkoak direla.

3. Dirulaguntzaren eskaria aipatu laguntzen oinarrietan eskatutako baldintzak betez egin da.

4. Erantsi zaio adierazpen honi laguntza hau eskatzeko nahitaezko dokumentazio guztia.

5. Jasotako dirulaguntzaren kargura egindako gastu eta ordainketen egiaztagiri guztiak, agiri elektronikoak barne, erakunde onuradunaren esku egongo dira 2025. urtera arte. Aldi horretan, dagokion administrazioak kontrol eta egiaztapen jarduerak egin ahalko ditu.

6. Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzearren, baimena ematen du bere datuak Gaubeako Udalak laguntzak kudeatzeko asmoz ezarritako fitxategian sartzeko, eta datuok ikusi, berretsi, deuseztatu eta aurkaratzeko eskubideak baliatu ahal izango dira hartarako, udalaren beraren bidez.

Horrenbestez, Gaubeako Udalari eskatzen dio:

Bere eskabidea onar dadila eta dagokion laguntza eman diezaiotela, laguntza hauen deialdiko oinarrien bidez.

Gaubea, 2020koarena

Sinadura eta enpresaren zigilua:

II. eranskina

Izen-abizenak:.....NANa:.....

Honakoa ordezkatzu (enpresaren edo erakundearen izena):.....

Izen komertziala:.....IFZ:.....

Adierazten du

Ezagutzen eta onartzen ditu Gaubean enpresa berriak sortzea sustatzeko laguntzen deialdi honetako oinarriak.

Ordezkatzen duen enpresak badu Gaubean helbide fiskala, soziala edo lantegi bat.

Ez dio eragiten dirulaguntza publikoen inguruko inolako itzultze edo zehapen prozedurak.

Ez dauka administrazioan eta auzitegietan dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen dion zigorrik edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera ezartzen diren sexu arrazoen ziozko bereizketagatik jarritakoak barne.

Egunean dauzka Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Laguntza eskabide honez gainera, helburu bererako laguntzak eskatu edo jaso ditu honako organismo publiko edo pribatuetatik:

ESKAERA DATA	ERAKUNDEA	PROGRAMA	ZENB. GUZTIRA	LAGUNTZAREN ZENB.

Agiriak eta eskabidean emandako datuak egiazkoak dira.

Deialdian eskatutako baldintza guztiak bete dira.

Eta, jasota gera dadin eta ondorio egokiak izan ditzan, agiri hau egiten du:

Gaubea, 2020koarena

Sinadura eta enpresa edo erakundearen zigilua: